

Hedadura: 12 Km²

Jaiak:

■ Herrikoak: Abuztuaren 15ean, Andra Mariaren Jasokundea. 16an San Roke, "Erromeria eguna" ospatzen da, Santiagomendiko basilizan meza ematen da.

Biztanlegoa: 3.203 biztanle

■ Santiago: Uztailaren 25ean.

Santiagomendi azpian, Urumea ibaiaren ibarrean eta Frantzia aldera zihoan Errege Bide ondoan zutitzen da Astigarraga herria. Ifarraldetik muga Donostiaraino luzatzen da, ifar mendebaldean Oiartzungo ibarra du mugaide eta Hernani hego-mendebaldean.

Urumea ibaiaren ibarrondo joriak, nekazaritarako eremu zabalak eta ur-etorri handia dituenak, emarazi du herrixka hau. Gaur egun oraindik ospea ematen dioten usadiozko hainbat ezaugarri eusten dio. Sagardotegiak ditugu aipagarrienak, sagardi-sail handiak lekutzen direlarik udalerriko sorotan, ezarian-ezarian desagertzen ari direnak egoitza eta industri eremuek janda.

Jatorria noiz duen Historian atzera egin da galtzen da, gutxienez Burni Aroraino, Txoritokietan gaztelu ondoan gordetako trikuharriak adierazten duenaren arauera (7-38). Bada hiri erromatarra izan zela dioenik ere, Plinioren testuak oinarri hartuaz.

Historikoki bi gune bereizi bazirela esan daiteke, Murgia batetik eta Astigarraga bestetik; 1840 arte nork bere-bidea urratu zuen, udalerrri bakarrean bildu ziren arte.

Ertaroan, banderizoen borrokak berobero zeudenean, Astigarraga Aiztondoko Alkatetza Nagusiari bildu zitzaion, bizilagun zuen Murgiako Jauntxoarengandik babestearren, hau Oñaztarra izanik bere lurrak handitu nahian bait zebilen.

XVII. mendearen erdialdean Alkatetzatik bereizteko baimena eskuratu zuen, Asteasu-rekin -taldean buru egiten zuena- diru eta

zerbituzko hainbat arazo izan bait zituen. Orduantxe Probintziako Biltzar Nagusietan Ordezkozta izatea lortuko da Asteasuk.

1941ean Donostiak mugaide dituen herriak beregana biltzeko borondatea azaldu zenean, Astigarragako udala aldeko agertuko da, Murgiako Jauntxoaren oinordeko zen Valdespinako Markesak buru egiten duen aurkako taldeari aurreginez. 1943ko urriaren 17an B.O.E.n baturaren onespena eman zen argitara, ia berrogeitamar urte beranduago urratu dena. Zuzen ote zebilen Markesa "ez da bidezkoa historiak esku artean utzitako askatasuna galtzea eta izango da erabaki hau hartu izanaren damurik" idatzi zenean?



Azaldutakoaren arabera Astigarraga bi biztanlegueneren inguruan tajutzen da: Ergobia eta agiri-iturrietan Astigarraga-Arribia izenez ageri den gune nagusia.

Santiagomendiko basiliza (13-60) inguruan lekutzen diren baserri-multzozentzat ardatz garrantzitsua da.

HIRIGUNEA

Erdigunea erreka-buru baten inguruan tajutzen da, seguruenik Urumearekin loturiko ibai-portu bat izatea bideratu zuena.

Azkeneko 20 urteotan ikaragarritzko hiri-hazkuntza izan du, erdigunearen tradiziozko irudia eratzen zuten eraikuntzarik gehienei eutsi zaien arren. Adierazgarrienak, zalan-zarik ez, Murgiako Jauregia eta Jasokundeko Andra Mariaren Parrokia dira.

■ Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-Eliza (7-31)

Eliza Urumeako ibarrari gaina hartuaz goigune batean zutitzen da. Antzin-antzinatik Murgiatarren nagusitzari loturik egon da, hauen oinetxea eliza ondoan lekutzen dela.

Litekeena da lehenengo eraikuntza XIII. mendean eraikia izatea, gerora zaharberritze ugari egin zaizkiolarik. Gurutze latiniarrezko oinplanoa du elizak, gurutzeriazko gangek estaltzen dutela. Korua arku handi baten gainean lekutzen da. Hogeitabost metrotako dorrea du oinaldean, kanpaiak eta eriojua biltzen dituena. Erlojua, Burdeostik ekarritakoa, 1840an jarri zuten. Sakristia, bataiontzia eta arkupea gaineratzen zaizkio hasierako eraikuntza mardul honi.

■ Murgiako Jauregia

Murgiako Jauregia (7-31) joan den mendean amaierako arkitektura eredu bikaina dugu. Jatorriz ordea, ertarokoa da, bertan izandako dorretxe bati lotua. 1457an Enrique IV.ak gaztelu-etxeak mozteko emandako



Jasokundeko Andra Mariaren parroki-eliza.



Joakitene etxea (Ergobia).

aginduaren ondorioz, Ahaide Nagusien inguruko arazoari amaiera ematearren, etxebizitza zibil bilakatu zen. Beranduago, frantsesek 1512an egindako erasoaldian suntsitu egin zuten. Gerrate karlistetan gudari-etxe eta ospitale egitekoa bete zuen, honetarako ere berri egin behar izan zutelarik.

■ Eliza dagoen muino azpian habitata sakabanaturik duen eremu bat zabaltzen da, ondoko eraikuntza hauek nagusitzen direlarik.: Apaizetxea, Foru kaleko 6.zbk. (13-50), sarrera erdi-puntuko arkupean duen Txomiñene etxea (13-51), eta Udaletxea (13-52). Udaletxea XVIII. mende hasieran eraiki zen. Zenbait arkutako aterpea du eta fatxadan jende aurreko egitekoetarako ohizko balkoiak.

UDALERRIA

► Santiagomendi

Santiagomendi aldera eginez gero, sakabanatutako beste etxe multzo bat dago, etxe jakingarri batzu biltzen dituena. Plaza-etxe (13-53), antzinako udaletxea esate baterako, edo erdi puntuko arkudun sarrera duen Iriarte baserria (13-55) basiliza izan zela esan ohi dena. Sail berean biltzen dira Zabale baserria (13-54), teilatuan harrizko gurutzetxoa duena, Goikoetxea oinetxea (13-56) sarrera-arkua eta inguruan karobi polit bat dituena (13-57); hauez gain, besteak beste, Bortaene baserria (13-58), arku konopialezko bi leiho bikoitz eta ertaroko hainbat elementu gorde dituena, eta Alorre baserria (13-59), ate nagusia erdi puntuko arkuaren zabaldua duena, dira aipagarrienak.

Santiagomendiko basilizak (13-60) arkitektura aldetik ez du interes handiegirik eskaintzen, 1590ean berri egin zutenean lehenaldiko ia ezaugarri guztiak ezabatu bait zitzaizkion, erretaula salbu. Aitzitik, kokaguneak du nolabaiteko interesa, Santiagoko bidea izan zen tokian lekuturiko mendibizkar txiki baten goialdean zutitzen bait da.

Badirudi basiliza ertaroz gerotik lekutuz dela bertan, barruan zegoen alabastrozko Santiagoren tailak dituen ezaugarriek adierazten dutenaren arabera. Tradizio handiko izan da beti eta Gipuzkoako lurraldea zeharkatzen zuten bide jakobearretan gelditoki garrantzitsua gainera.

► Ergobia

Ergobia auzoa Hernanira doan errepide ondoan dago kokaturik, Behobia-Frantziara zihuan Autoen Errege Bideak zeharkatzen zuten izen bereko zubi inguruan.



Santiagoren alabastrozko taila (egun Donostiako eliz-barruti museoan).

Badirudi gune honen sorrera, Errege Bideak eta Murgiako Jauntxoarenak ziren ontzitegiek -iadanik XVI. mendeko agirietan jasoak ageri direnak- bideratu zutela. Auzo honetan aipagarriena eraikuntzek duten itxura tipikoa da, marinel usaina ere hartzen zaiena, Joakitene'riesate baterako (13-46).

Baditu bere lurretan oso antzinakoak diren eraikuntzak ere, Zubimuzu adibidez (13-47) XVI. mendeko agirietan jasoak, eta orain dela urte gutxi gertatutako sute baten ondorioz gainbehera gelditu dena.

Elementurik gailenena zalantzarik gabe zubia da (13-48). Kareharrizkoa da, bi zulo eta zubibularrei eusten dien pilareak dituen. 1728 eta 1733 bitartean eraiki zen, aurrez zegoen egurrezko baten lekua betetzaz, hau arerioen erasoaldiak zirela, berezko istripuak zirela bertan behera eroria geldituzen bait zen, Errege Bidean zehar joan-etorria eragotziaz. Halako bide mozteak zirenean, Probintziak jarritako ontzi-gidari bat izan ohi zen, ibaiaren alde batetik bestera bidaia-riak nahiz merkagaiak eraman ohi zituen.

■ Hirigunetik zertxobait aldendua, Hernanirantz doan errepidean Nobleza baserria (13-44) armaria duena, eta Oiarbide baserria (13-43) lekutzen dira. Bigarren hau iada XV. mendeko agirietan azaltzen da.

Erreterria eta Oiazun aldera doan errepide inguruan Lizardi multzoa zutitzen da. Hiru baserrik osatzen dute: Argindegi Zahar (7-33) erdi-puntuko arkudun atea duena, Rekalde Zahar (7-32) ia fatxada osoa betetzen duen arku handikoa eta Lizardi (7-34) orain dela gutxi zaharberri egin duten arren, tradiziozko itxurari heldu diona.

Larraburu (7-37) bazter utzia eta gainbehera dagoena, Errota Zahar (7-35) oraindik ere badabilen ur-errota zaharra eta Olabarría (13-61) oinplano angeluzuzena duen eraikuntza handi bat, udalerriaren ifarrean biltzen diren beste eraikuntza aipagarri batzuk ditugu.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

